

LHC azeleragailua martxan da, protoi sortak arrakastaz igorri ondotik

Partikula azpiatomikoen azeleragailuak ez duela inolako arriskurik sortzen berretsi dute zientzialariek

Erredakzioa

Lehenengo protoi sortak 50 minutu eskasetan lortu du LHC Large Hadron Collider azeleragailuaren itzulia osatzea. Uste bezala eman dio buelta 27 kilometroko diametroa duen tunelari. Erlojuaren noranzkoan denak ondo funtzionatzen duela ziurtatu ondotik, kontrako norabidean egin dute hurrengo saioa. Ibilbidea osatu dute bigarrenengo horretan ere. Horregatik, azeleragailuaren kontrol aretoan, Genevan (Suitza), bildutako dozena bat zientzialarik txalo zaparradarekin ospatu dute inoizko esperimendu fisiko handienaren hasiera arrakastatsua.

Helburua

LHC partikulen azeleragailuarekin unibertsoari bide eman zioten baldintza fisikoak erreproduzitzea dute helburu. Horretarako, tramankulu itzela eraikitze lanetan aritu dira duela zazpi bat urtetik hona. Egindako inbertsioa ere handia izan: 6.000 milioi euro inguru behar izan dituzte LHC martxan jartzeko.

Azeleragailuaren atal bakoitzak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatu eta hilabete eskasera unibertsoa nola sortu zen ikertzen hasiko dira. Horretaz gain, materia ulertzen saiatuko dira dozenaka aditu. Partikulen arteko talka eraginez, Higgs bosoiaren teoria, edo materia eta energia ilunaren teoriak ere baieztatu nahi dituzte.

Helburua

Arriskurik ez

Zientzialariek ahaleginak egin badituzte ere azaltzeko LHC azeleragailuak ez duela arriskurik eragingo, zenbait herritarren artean psikosia zabaldu da. CERN Ikerketa Nuklearrerako Europako Batzordearekin -CERNeko laborategietan eraiki dute LHC- kritiko direnek kezka agertu dute azeleragailuak duen indarra dela eta. Zulo beltzak sortuz, unibertsoa suntsitzeko ere gai izan daitekeela uste dute horiek. Zientzialariek, baina, ukatu egin dute hori gerta daitekeela. Zulo beltzak sortzea lortuz gero ere, berehala desagertuko lirateke, horien arabera.

«Ohikoa da naturan guk sortuko ditugunak baino talka eta tximista handiagoak gertatzea. Egingo ditugun esperimendu guztiak naturak berak eginak ditu dagoeneko dozenaka mila aldiz, eta, hala ere, hemen jarraitzen dugu», azaldu du Tejinder Virdee LHCreko ikerketetan parte hartuko duen zientzialariak.

Halako azalpenekin, ordea, ez dituzte guztiak lasaitu. Atzo, hala, LHC martxan jartzearekin bat mundua amaituko zela sinetsita, 17 urteko gazte batek bere buruaz beste egin zuen Indian. Beste zenbaitek, berriz, hain muturreko egoera batera iritsi gabe ere, bide judizialera jo dute. Azeleragailua martxan jartzearen aurka bi salaketa jarri dituzte hainbat herritarrek.

Alabaina, kritikek ez dute esperimendu fisiko handia hastea galarazi. Hemendik aurrera energia handigoa erabiliko dute, gainera, protoi sortak igorri eta horien arteko talka eragiteko. Lehenengo partikula azpiatomikoek 50 minutu behar izan badituzte eraztunari bira emateko, hemendik gutxira 11.245 itzuli emango dizkiote segundo bakarrean.

Aipatutako aspektu zientifikoak:

